

Kristina Elozegi oroimenean

Orain dela hilabete batzuk ilusioz beteta hasi ginen prestatzen IKASTARIA aldizkariaren 19. alea. Ilusio eta gogo berdinarekin egile askok beren lanak bidali zizkiguten argitaratzeko eta ekarpen horiei esker izan da posible ale berri hau irakurleei helaraztea. Hasi ginenean, ordea, ez zitzaigun burutik pasatu ere egin le-
rro hauekin emango geniokeela hasiera monografiko honi, izan ere, tristura-laino batek lausotzen du alea kaleratuta ikustearen poza.

2013ko abenduaren 9an zendu zen Kristina Elozegi Aduriz, gure lankide eta ikerkidea. Berriak gogor astindu gintuen, bere ondoezaren berri izan arren uste-
kabean harrapatu baikintuen saihests ezineko amaiera horrek.

Kristinak Deustuko Unibertsitatean amaitu zituen Euskal Filologiako ikasketak 1987an, eta hamar urte beranduago bere doktore-tesia defendatu zuen Euskal He-
rriko Unibertsitatean ume elebidunen hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko ikerke-
tarekin (*Kasu eta proposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*).

Lan-egoerak behartuta, urteetan fakultate batetik bestera eta sail batetik bes-
terako joan-etorrian ibili zen irakasle. Lehenengo Hezkuntza Zientzien Fakultatean
eta gero Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan lanean ibili ondoren, 2003an
Kristina Erizaintzako Unibertsitate Eskolan irakasle izateko iritsi zen Euskal Filolo-
gia sailera. Urte batzuk han igaro ondoren, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didak-
tika sailera egin zuen bidea, Donostiara, bere azken urteak bertan emateko.

IKASTARIAren ale honetan, beste ikerkide eta lankide batzuekin batera pres-
tatutako lanaren ekarpena egiten zuen Kristinak. *Hiprest* sareko kide batzuekin ba-
tera irakasle hasi berrien esperientziari buruz prestatu zuen lana, tamalez, ez du
argitaratuta ikusiko. Bere kideek *In memoriam* gehitu behar izan diote lanari. Eta
nik ere hemen, Erredakzio Kontseilu kide guztien izenean, alearen koordinatzaileen
izenean, eta berarekin une batean edo bestean bidean elkartu garenon izenean,
hitz hauek eskaintzen dizkiot.

Ines M. Garcia Azkoaga
IKASTARIA aldizkariaren zuzendaria

Kristina Elosegí en el recuerdo

Hace unos meses comenzamos a preparar llenos de ilusión el número 19 de IKASTARIA. Con las mismas ganas y la misma ilusión muchos autores nos enviaron sus trabajos para publicarlos; gracias a esas contribuciones ha sido posible poner este monográfico al alcance de los lectores. Sin embargo, mientras lo preparábamos ni se nos pasó por la cabeza que cerraríamos el ejemplar con estas líneas, pues una nube de tristeza empaña la alegría de ver publicado este nuevo número.

El 9 de diciembre de 2013 falleció Kristina Elosegí Aduriz, compañera de trabajo y de investigación. La noticia fue todo un golpe, pues si bien era conocida su indisposición, el inevitable final nos pilló por sorpresa.

Kristina terminó los estudios de Filología Vasca en la Universidad de Deusto en 1987 y diez años después defendió su tesis doctoral en la Universidad del País Vasco con una investigación sobre la adquisición del lenguaje en niños bilingües (*Adquisición y desarrollo de los casos y las preposiciones en un niño bilingüe*).

Obligada por la situación laboral, durante años anduvo como profesora de una facultad a otra y de un departamento a otro. Tras estar trabajando primero en la Facultad de Ciencias de la Educación y luego en la Escuela Universitaria de Profesorado de San Sebastián, en 2003 Kristina se incorporó al departamento de Filología Vasca para impartir clases en la Escuela Universitaria de Enfermería de San Sebastián. Tras algunos años en ese departamento, finalmente pasó a formar parte del departamento de Didáctica de la Lengua y de la Literatura en San Sebastián, donde pasó sus últimos años.

En este número de IKASTARIA Kristina participaba, en colaboración con otras compañeras de la red *Hiprest*, con una contribución sobre la experiencia de los profesores noveles. Por desgracia, no podrá ver publicado el fruto de su trabajo. Sus compañeras han tenido que añadir la expresión *In memoriam* al artículo. Y yo aquí, en nombre de todos los miembros del Consejo de Redacción, de las coordinadoras de este número y de todos y todas las que en algún momento hemos coincidido en su camino, le dedico estas palabras.

Ines M. Garcia Azkoaga
Directora de la revista IKASTARIA